

V. taldea

40 edizioak betetzear dira. Modu arin eta eskematikoan egin dezagun memoria: 39 urte hauetan zein egoera politiko, sozial, linguistiko, instituzional bizi du Kilometroak jaiak?

Indibidualizazioaren fenomenoaren ondorioz, jendea asko urrundu da memoria kolektibotik. Iraganetik datozen dinamikak eta mugimenduek ez dute komunitatea batzeko nahiko indarrik.

Kilometroak-ek bere jatorrian aldarrikapen zabal bati erantzuten zion; hau da, Nazio Euskal Hezkuntza sistemaren aldarrikapenari. **Zatiketa administratiboaren** ondorioz, dimentsio nazionala galdu dela jabeturik, jendarteak orokorrean amore eman du eta egun dagoen legediarekin asetua sentituz, Kilometroak-ek jatorrian zuen zentzua eta xedea guztiz higatuta daude. Hori dela eta, Ikastolek zerbaitetan ezberdinak direla adierazteko “produktu” berriak sortzeko ataka berriaren aurrean daude. Baina sakonean dagoen arazoa da, bidean, herriari dagokion aldarrikapena galdu egin dela, eta ikastolak beste ikastetxeekin lehian “produktu” bat eskaintzearen beharra daukala.

Errealitate hau askoz gehiago sakondu zen **publifkazio** legearekin; aurretik euskal jendartean zegoen giro sozio-linguistikoa oso bestelakoa zen eta ikastola euskararen aldarrikapenarekin lotzen zen. Egundik ikastola beste ezaugarriekin lotu ohi da. Zoritxarrez Ikastolen mugimenduak denbora gehiegi eman du bere originaltasuna beste ikastetxeekin ezberdina dela formula hori bilatzen eta poliki-poliki bere jatorri soziolinguistikoari bizkarra eman dio; alegia, herritik dagoen aldarrikapenetik ikastola urrundu egin da. Ikastola, Nazio Euskal Hezkuntza sistemaren aldarria izan beharko litzateke.

XXI. mendearekin batera globalizazioak jendartearekiko urruntzeko eragina izan du eta agian Kilometroak jaiak “guztontzat produktua” izateko anbizioa izanik, komunitatearen sentipena galtzen joan da. Kilometroak jaiak bere “ereduarekin” existitzen jarraitu behar du, eta “eredu” honen bitartez bere nortasuna adierazten jarraitu behar du. Errealitate honek ez du esan nahi aldaketak edota berrikuntzak ez direla behar; doikuntzak behar-beharrezkoak dira. Kilometroak jaiak izan duen



bilakaerarekin kritikoa bagara, onartu beharko dugu jaiaren doikuntza gure ereduari baino jendartetik inposatzen diren eruedetara hurbildu dela. Ez dago zalantzarik Kilometroak jaiak ospakizun endogamiko izaeratik ihes egin behar duela, baina onartu behar da Kilometroak jaia ez dela jende guztiarentzat eta bertan partehartzeak kontsumoa baino haratago joanez, atxikimendu sakonagoa erakusteko gunea izan behar dela.

Gure jaiak 40 urteetan euskal jendartea “kapitala soziala” izatea lortu du. Maiz, norbera bere erraietara begira jartzerakoan kritikotasuna jarrera zorrotzegia erabiltzeko ohitura izaten da, eta ahaztu egiten da kanpotik nola antzematen duten ikuspuntuak aztertzea. Eta zentzu horretan, esan beharra dago bi kontzeptuen arabera sektore zabaletatik gure antolakundea miresten dela: Auzolana batetik; komunitatearen sentimendua bestetik. Bi kontzeptu hauek balore sendoak dira eta gure jaiaren benetako patrimonioak dira. Globalizazio aro honetan gure jendartea, aitzitik, kontrakorrontean doa, indibidualizazioa bere ezaugarri nagusia delarik.

Auzolana militantzia primitiboa dela diote batzuk, eta gure herria herri-mugimenduetan hain anitza izatearen atzean, seguruenik, jatorriz gure kulturarekin bat egiten duen balore komunitario dagoelakoan gaude. Gaur egun, aldiz, militantzia hitza ere higatu samarra dago, et sektore batzuk bere errealitatetik ihesa ere dabilta. Zoritzarrez, auzolana eta militantzia bi kontzeptu eta balore zatiezinak dira; hau da, ezin da auzolanean aritu militantzia sentimendua barneratuta izan gabe.

Agian, egun, Kilometroakek dituen zailtasunak egun bakar batean burutzetik datozkio. Makro jai bakar bat egin beharrean beste eredu batzuk aztertu beharko lirateke; hala nola, urte osoko dinamika jai txiki batzuk antolatuz; herrialdeko mugak gaindituz, herrialdeen arteko dinamikak piztuz; ...

Urte hauetan guztietan Kilometroak jaiaren “akomodazio” prozesua eman da. 1077. urtean dena egiteke zegoen bitartean, egun dena egin dagoelaren sentimenduan bizi gara; 1977. urtean gauzak berriak egitearen aurrean zegoen ausardiarekin alderatuta, egun duguna galtzeko beldurtuta gaude, alegia, dirua ez lortzeko beldurtuta. Kilometroak “kapital soziala” da (frankizia); horrela izanik jaiari funtzionalitate sozial berria eman behar zaio.

